

## / Nabarmentzekoak

- > Kontratatze laguntzak Getxoko enpresentzat (2. or.)
- > Muxikebarrik antzerki, musika, dantza eta umorezko 50 ikuskizun inguru hartuko ditu 2026ko lehen lau hilabeteetan (3. or.)
- > Edukiontzari marroiaren gaikako bilketa bultzatzeko foru kanpaina aurkeztu da Tiki Toki Zentroan (5. or.)

\* Algortako AJANE elkarte eta Egoitz Méndez (GAUDE), 2025eko Boluntarioritza sariak (4. or.)



**Getxolandia.** Abenduaren 19tik urtarrilaren 6ra, Gabonetako haur parkea, Areetako Geltokiko plazan. Bidaia bat: 2 euro (5 bidaiako bonua: 7,50 euro).

**A-GENDA**

**Dantza.** Hilak 21, igandea, 18:00etan, Muxikebarri, "El Quijote", Arte Ederra Ballet Gaztearekin. 5 euro.

## Hilaren 19an itxiko da Venancioseko alokairuzko 54 BOEk eskuratzeko eskaera epea

Datorren ostiralera arte, abenduak 19, aurkeztu ahal izango dira eskaerak Algortako Venanciose Babes Ofizialeko 54 etxebizitzak (erregimen orokorra) errentamendu-erregimenean esleitzeko prozeduran parte hartzeko. 54 etxebizitzetatik 3 mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonentzat egokituta daude. Gainerako 51tatik, 24 logela bakarrekoak dira eta 44,45 m<sup>2</sup> eta 46,66 m<sup>2</sup> arteko azalera dute; 25 bi logelakoak dira, 66,95 m<sup>2</sup> eta 69,45 m<sup>2</sup> artekoak; eta 2 etxebizitza hiru logelakoak dira, 89,65 m<sup>2</sup>-koak.

Etxebizitza horiek eskuratzeko baldintzak honako hauek dira: Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta emanda egotea alokairuko eskatzaile gisa Getxon; eskaeraren titularretako batek, gutxienez, Getxon erroldatuta egon behar du urte bateko antzinatasunarekin (etenik gabe), edo 3 urteko antzinatasunarekin azken 5 urteetan (2025eko abenduaren 4an); 2024. urteko zergaldiko diru-sarrera haztatuak ezin dira izan 9.000 euro baino txikiagoak eta 45.022,57 euro baino handiagoak; Bizikidetzaren unitatea ezin da 6 kide baino gehiagokoa izan eta horiek ezin izango dute etxebizitarik eduki jabetzan, azalera-eskubidean edo usufruktuan abenduaren 4an (ezarritako baldintza horietako batzuk betetzeko salbuespenak aurreikusten dira).




Eskabideak honako irizpide hauen arabera barematuko dira: diru-sarrerak, bizikidetzaren unitateko kide-kopurua, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko inskripzioaren antzinatasuna eta etxebizitza-premia berezia.

### Non aurkeztu Etxebideren eskaerak

Eskaerak hainbat modutan aurkez daitezke: Etxebideren webgunean ([www.etxebide.euskadi.eus](http://www.etxebide.euskadi.eus)); aurrez aurre Zuzenean-en hitzordua eskatuta (Kale Nagusia 85, behea. Bilbo); postaz Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan (Kale Nagusia 85,

6. solairua, 48011-Bilbo); edo Herritarrei Arreta emateko Torreneko (Algorta) eta Las Mercedeseko (Areeta) Bulegoetan. Aurretiko hitzordurik behar ez den arren, arreta hobea izateko, Call Centerren (010) edo udalaren webgunean ([www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)) eskatzea gomendatzen da.

Sustapen honetan parte hartzeko baldintzak betetzen duten guztiek mail edo gutun bat jasoko dute etxean izena emateko datu guztiekin. Informazio osoa [www.etxebide.euskadi.eus](http://www.etxebide.euskadi.eus) webgunean.



## Getxophoto 2026KO Open Call nazioarteko deialdian lanak saritu dira

Getxophoto 2026ko Open Call deialdian saritutako argazkiak honako hauek izan dira: Yuxing Chen Erresuma Batuan bizi den artista txinatarraren *The Oriental Scene*; Mohamed Hassan egiptoarraren *Our Hidden Room*; eta Yun Ping Li Txinan jaio eta Euskadin hazitako argazkilaria, artista bisual eta performerraren *回家 (hui jiā)*. Pablo Berástegui, César González-Aguirre eta Lea Tyrillová sektoreko adituek eta María Ptqk Getxophotoko komisarioak osatutako epaimahaiak 12 proiektu finalista eta 3 irabazle hautatu ditu. Horien lanak jaialdiaren hurrengo edizioan erakutsiko dira (maiatzaren 28tik ekainaren 21era). Nazioarteko deialdi honetan, 48 herrialdeko 533 proiektu jaso dira, hala nola Peru, Finlandia, Suitza, Polonia, Turkia, Portugal edo Indiakoak.



## Punta Begoñak Ondare Iberikoaren Sari Berezia jaso du Portugalen

Punta Begoñaren berreskuratze irekiko proiektuak Ondare Iberikoaren Sari Berezia jaso du Sintran, ezarritako kategoriaz guztietan: parte-hartzea, komunikazioa, bitartekaritza, irisgarritasuna eta sareen sorkuntza; eta nazioarteko epaimahaiak talde eta erakunde publikoak integratzeko duen gaitasuna nabarmendu zuen. Hautagaitza, Portugal eta Espainiako beste 17 proiektuekin batera hautatua, Ondare Iberikoaren Biurtekoaren esparruan defendatu zen. "Sari honek ikerketa-, kontserbazio-, komunikazio- eta herritarren partaidetza-urteei ematen die balioa. Punta Begoña Fundazioaren lana eta gure komunitateak gure ondarea babesteko eta etorkizunera proiektatzeko hartu duen konpromisoa aintzatesten ditu", nabarmendu zuen patronatuko presidente eta alkate Amaia Aguirrek.



## ABENDUAK 11 OSTEGUNA

**Zinemabari.** 19:00h, Muxikebarrin, Jacques Audiarden "Emilia Pérez" (gaztelaniaz). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

**Merkatu txiki solidarioa.** Gabonetako apaingarriak, moda, osagarriak, haurtxoentzako arropa... Igandera arte, hilak 14, Basagoiti 73an, Aretxondo kultur elkartearen lokalak. [www.asociacionculturalaretxondo.org](http://www.asociacionculturalaretxondo.org)

## ABENDUAK 12 OSTIRALA

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera (gaztelaniaz).

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "R&J" (euskaraz), La Dramática Errantekin. 16 urtetik aurrera. 8 euro.

**Zine kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Hong Sang-soore "En la corriente" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

## ABENDUAK 13 LARUNBATA

**Martxa nordikoa.** 10:00etan irteera Algortako batzokitik, Getxon ibiltzeko. Beharrezkoa da parte-hartzea baieztatzea (hilaren 10a baino lehen) [nw.itxartu@gmail.com](mailto:nw.itxartu@gmail.com) helbidean. Antolatzailea: Itxartu.

**Ipuin-kontaketa. Storytime.** Algortako Kultur Etxean (Villamonte) "Saving Christmas" (ingelesez). 3-7 urte. Doan. Izena emateko: [getxo@kidsandus.es](mailto:getxo@kidsandus.es) / [algorta@kidsandus.es](mailto:algorta@kidsandus.es)

**Dantza Plaza.** 19:30ean, Areetako Eskoletako plazan, erromeria herrikoia bertako Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeekin.

**Kontzeru solidarioa. Bidesariren alde.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Bilbao Gospel abesbatzaren emanaldia. 10 euro. Antolatzailea: Areeta-Romoko Espetxe Pastoraltzarako Taldea.

## ABENDUAK 14 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Heide. Katamotzaren erreskatea". 2,50 euro.

**Antzerkia. Emakumeak eszenan.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "En un canal de la Mancha", Luna Llena Teatrotan. Gonbidapenarekin (Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin).

**Dantza.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Cowards", Ángel Durán Performing Arts taldearekin. 14 urtetik aurrera. 6 euro.

## ABENDUAK 15 ASTELEHENA

**Hitzaldia.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Fotoperiodismo: una mirada particular". Hizlaria: Paco Valderrama (kazetaria, World Press Photoko komisarioa). Antolatzailea: Sínopie Kultur Elkarte. <https://sinopieblog.wordpress.com/>

## ABENDUAK 16 ASTEARTEA

**Kontatu erretratu hau.** 18:00etan, AJANeren egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakontzat.

**Gabonetako kontzertua.** 18:15ean eta 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, ikasleen emanaldia.

## ABENDUAK 17 ASTEAZKENA

**Kontatu erretratu hau.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gora.

**Liburu-aurrezpena.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Durante una mirada" liburuaren aurrezpena (gaztelaniaz), Oti Estébanez egilearen eskutik.

**Versadas.** Olerki-kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Charles P. Baudelairearen lanei buruz (gaztelaniaz).

**Gabonetako kontzertua.** 18:15ean eta 19:30ean, Algortako Andrés Isasi Musika Eskolan, ikasleen emanaldia.

**Gabonetako kontzertua.** 20:00etan, Santa Anako parrokiaren Ondarreta abesbatza (Getxo) eta Arima Kamerata Orkestraren (Bilbo) emanaldia.

## ABENDUAK 18 OSTEGUNA

**Ipuinariaren ordua.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Otso ipuinak", Amaia Puinarekin. 4-7 urte. Doan. Izena emateko: [www.getxo.eus/apuntazaitez](http://www.getxo.eus/apuntazaitez)

**Zinemabari.** 19:00h, Muxikebarrin, Eran Riklisen "Leer Lolita en Teherán" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

**Gabonetako kontzertua.** 20:15ean, Trinitarioen elizan, Itxartu Abesbatza eta Lagun Artea Abesbatza taldeen emanaldia.

## ABENDUAK 19 OSTIRALA

**Getxolandia. Gabonetako Haur Parkea.** Areetako Geltokiko plazan. Urtarrilaren 6ra arte. Bidaia bat 2 euro, 5 bidaia bonua 7,50 euro.

**Hitzaldia.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica. Henry Purcellen "Dido & Eneas". Hizlariak: Dario Tamayo eta Moisés Maroto (musikariak). Informazio gehiago: [www.allantica.org](http://www.allantica.org)

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "52 Hertz" (euskaraz), Ados Teatrotan. 8 euro.

**Zine-Kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Gracia Querejetaren "La buena suerte". 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

**Kontzertua.** 18:00etan, Urepel Abesbatza (Sopela), BBKantuz (Bilbo) eta Bilboko Club Deportivo abesbatzen emanaldia.

## ABENDUAK 20 LARUNBATA

**Gabonetako V. organo zikloa.** 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokiaren, Alberto Mielgo (saxoa) eta Pedro Guallar (organoa). Antolatzailea: Merklin organoaren lagunen elkarte.

**Gabonetako kontzertua.** 19:00etan, Muxikebarrin, Biotz Alai abesbatzaren emanaldia. Gonbidapenak agortuta.

## ABENDUAK 21 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Katak, la pequeña ballena" (gaztelaniaz). 2,50 euro.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Mairuaren gaztelua ispluaren bidez". 2,50 euro.

**Dantza.** 18:00etan, Muxikebarrin, "El Quijote", Arte Ederra Ballettaldearekin. 5 euro.

# Kontratatzeko laguntzak Getxoko enpresentzat

Abenduaren 12tik 31ra egongo da zabalik Getxon 2025. urtean enplegua sortzea sustatzeko enpresei zuzendutako laguntzak eskatzeko epea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren deialdiaren barruan daudenak.


Diru-laguntza eskaera aurkeztu den hurrenkeraren arabera emango da, betiere behar bezala beteta badaude eta espediente osorik badago eta aurrekontu-kredituaren mugaraino (166.737 euro).

Getxon erroldatutako eta Lanbiden enplegu-erantzule gisa inskribatutako langabeak kontratatu dituzten tokiko enpresentzat dira diru-laguntza horiek. Kontra-



tu horiek 2024ko uztailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitartean hasita egon beharko dira, eta mugagabeak eta lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan beharko dute, gutxienez lanaldiaren %50arekin.

Informazio gehiago: <https://labur.eus/kajtnruz>



## Salome Pazhavaren masterclassa

Getxoko Gimnastika Klubak masterclass bat antolatu du Salome Pazhava georgiarrarekin. Gimnasta hau bi aldiz izan da olimpikoa (Rio 2016 eta Tokio 2020), bosgarrena Europako Txapelketan eta laugarrena Mundukoan. Klase magistrala larunbat honetan izango da, hilak 13, Fadurako kiroldegian, goizez zein arratsaldean, eta maila guztietako gimnastak hartuko ditu. Horiek gorputzaren eta aparatuen teknika landuko dute.



## Justin Dupontek eta Clement Roseyrok olatu handiko surf txapelketa irabazi dute

Justine Dupont frantziarrak (faborito nagusia) eta Clement Roseyro Miarritzeko surfariak irabazi dute Red Eléctrica Punta Galea Big Wave Challenge txapelketaren sari nagusia, joan den larunbatean, hilaren 6an, 6 metro inguruko olatuekin egindako jardunaldi ikusgarrian, non 20.000 pertsona bildu ziren Galeako itsaslabarretan. Jende kopuru historikoa bildu zen, kirol ekitaldiaren antolaketaren arabera. Nazioarteko proban lehen aldiz lehiatu ziren gizonak eta emakumeak, eta 30.000 euro banatu zituen saritan.

# Kanseniaren aldeko azoka txikia eta erakusketa

Tourseko San Martineko Mizio Taldeak bultzatutako Kongoko Errepublika Demokratikoko Kanseniako eskolatzeko proiektuari buruzko argazki erakusketa izen bereko elizan izango da ikusgai datorren abenduaren 23ra arte. Bestalde, abenduaren 16ra arte urteroko azoka txikia zabalik egongo da, Kanseniako misioaren alde. Bertan, osagarriak, tresneria, gabonetako artikuluak, liburuak eta jostailuak aurki daitezke prezio merkean.

Bietarako ordutegia: asteleheneetik larunbatera, 10:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta igandean, 11:00etatik 14:30era.

## "Eman minutu 1"

Urtarrilaren 31n amaituko da, UN Etxeak, Getxoko eta Bilboko Udalen eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, antolatutako EMAN MINUTU 1 ikus-entzunezko piezen XVI. Nazioarteko Lehiaketarako lanak aurkezteko epea, oraingoan KULTURARI buruzkoa. Minutu bateko ikus-entzunezko pieza onenak sarituko dira eskubide kulturalak defendatzen, sustatzen, aldarrikatzen, zabaltzen eta/edo kontzientziazatzen dutenak.

## Erakusleihosarea, ikusizko lerro komun berritzailearekin

Getxo Enpresaren ekimenez, udalerriko negozio txiki batzuek beren erakusleihok bateratu dituzte, Getxoko balioekin lerrotutako ikus-ildo komun berritzaile baten pean. Jarduera horrek Hemen ez ditugu joerak jarraitzen, sortu egiten ditugu! du izena, eta Udaleko Sustapen Ekonomikoaren arloaren babesa du. Negozio bakoitzak window kit bat du, erakusleihokomun erakargarri eta berritzaile bat konfiguratzeko behar diren elementuak dituen pakete integral bat, eta, aldi berean, parte hartzen duen merkataritza identifikatzen duten produktuak dituen. Eta erakusleihoen ibilbide bat dago parte-hartzaileekin, edozein terminal mugikorretatik eskura daitekeen mapa interaktibo batean.



**Anabel Alonso, Fernando Guillén Cuervo, María Barranco, Imanol Arias, Raúl Refree eta El Niño de Elche, Janus Lester, Jon Plazaola, Antonio Najarro Dantza Konpainia, Golden Apple Quartet eta Uri Caine, Getxo bisitatuko duten izenen artean**

## Muxikebarrik antzerki, musika, dantza eta umorezko 50 ikuskizun inguru hartuko ditu 2026ko lehen lau hilabeteetan

Muxikebarrik arte eszenikoen modalitate guztiak jorratzen dituen kultur programazioarekin estreinatuko du 2026. urte berria, zinema programazio erregularra ahaztu gabe. Urtarrilaren 2an hasi eta apirilaren 26ra arte, Getxo Kulturak antzerki, musika, dantza eta umorezko 50 ikuskizun inguru hurbilduko ditu publikoarengana, zinema programazioa ahaztu gabe, haurrei arreta berezia eskainiz, eta, era berean, askotariko proposamenenez gozatzeko aukera izango du. Anabel Alonso, Fernando Guillén Cuervo, María Barranco, Imanol Arias, Raúl Refree eta El Niño de Elche, Janus Lester, Jon Plazaola, Antonio Najarro Dantza Konpainia, Golden Apple Quartet eta Uri Caine dira lehen lau hilabeteetan Getxoko zentrotik desfilatuko duten izenetako batzuk.

### Gazteak eta haurrak

Datozen hilabeteetarako, Muxikebarriko programazioak arreta berezia eskaini die gazteei eta haurrei.

Gazteek Katanaren (urtarrilak 9), Jon Plazaolaren (otsailak 6) eta Asari Bibangen (martxoak 6) umorezko bakarrizketez gozatu ahal izango dute. Antzerkiaren atalean, *Princesas, caballeros y dragones* (urtarrilak 23), *No me toques el cuento* (otsailak 20), *Las Reinas kanpina* (martxoak 20) eta *Massilia* (apirilak 17) muntaien artean, eta *¿Quién soy yo?* muntaia musikala (apirilaren 26a).

### Vanito Brownek bere album berria aurkeztuko du: "Etcetera"

Getxon bizi den Vanito Brown kubatar kantautoreak, trova modernoaren eta pop latinoaren eragin handiko ahotsak, *Etcetera* disko berria kaleratu du, larunbat honetatik aurrera (abendua 13) plataforma digital guztietan eskuragarri egongo dena.

30 urteko ibilbide luzearen ondoren, freskotasuna, nortasuna eta Euskadin bizi denetik izandako bilakera artistikoarekin oso lotuta dagoen proposamen musikala uztartzen dituen lan hau aurkeztu du orain.

Haurrentzat, honako ikuskizun hauek programatu dira: *Altxorren uhartea* (urtarrilak 11), *Amal* (urtarrilak 18), *Hodei guztien gainetik* (urtarrilak 25), *Lamiaren ispilua* (otsailak 1) edo *Magia mundiala* (otsailak 8). Inauteri garaian (otsailaren 15, 16 eta 17an), goizez *Kimu, Solo* eta *Zomorroak* ikusi ahal izango dira. Horiei, *Loa eta Laia* musika-ikuskizuna (martxoaren 15ean), *El misterioso caso de Houdini y la habitación cerrada* (martxoaren 22an), *Matres* (martxoaren 29an) eta *Univers* (martxoaren 8an) txotxongilo-lanak gehitu behar zaizkie. Horri guztiari Zinemaxiki

eta Haur zinea zinema-zikloen eskaintza gehitu behar zaio.

### Musika, antzerkia eta dantza

Musika-programazioaren barruan, Neguan Flamenco zikloan Vicky González eta Sara Castro (otsailaren 15ean) eta Ana Polanco (otsailaren 29an) arituko dira, eta Negufest-en, Raúl Refree & El Niño de Elche (urtarrilaren 16an), Janus Lester (urtarrilaren 30ean), Standstill (otsailaren 13an) eta La habitación roja (otsailaren 27an) taldeen kontzertuak egongo dira. Beste kontzertu batzuk Golden

Apple Quartet, Uri Caine, *La flauta mágica* eta *L'elisir d'Amore* operak eta *El dúo de la africana* zarzuela izango dira. Antzerkian, besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira: *Testigo de cargo*, Fernando Guillén Cuervorekin; *La mujer rota*, Anabel Alonsorekin; *Mejor no decir*, María Barranco eta Imanol Ariasekin; eta, euskaraz, *Desobedienteak 18/98*, *Kaka* edo *Nor naizen baneki*. Dantza ikuskizunak ere izango dira, hala nola *Dónde estás Alicia* eta *Romance sonámbulo*. Programazioa eta sarreraren salmenta: [www.getxo-kultura.eus](http://www.getxo-kultura.eus)



### "R&J", maitasuna arintasun emozionaleko garaietan

La Dramática Errante antzerki konpainiak *R & J* euskarazko antzezlan taularatuko du abenduaren 12an, ostirala, Muxikebarrin. "*Shakespearearen maitasun tragikoaren eta orainaldiko lotura desberdinen arteko elkarrizketa da. Arintasun emozionaleko, sare sozialetako eta maitatzeko modu askotako garaietan maitasunaz hitz egiteko abiapuntua da*". María Goiricelayaren zuzendaritzapean, Ane Pikaza, Aitor Borobia, Egoitz Sánchez, Nagore González eta Luix Mitxelena igoko dira oholtzara. 20:00etan hasiko da eta sarrerak 8 euro balio du.

### "Cowards", maskulinitasunari buruzko dantza

Ángel Duran eta Yeinner Chicas dantzariak *Cowards* dantza-ikuskizunarekin iritsiko dira Muxikebarrira. Egungo maskulinitasunari buruzko muntaia da, eta gaur egungo gizon-portaera deseraikitzen du, batzuek goraiatua eta askok zalantzan jarria. Igandean, hilak 14, 20:00etatik aurrera, dantza eta antzerkia uztartuko dituzte, kontzertu fisikoa balitz bezala. "*Koreografia zorrotza, ustez gizon izan behar denarekin hausten duena*". Sarrera: 6 euro.

## Emakumeak eszenan

Romo Kultur Etxeak *En un canal de la Mancha* antzezlan eskainiko du igande honetan, hilak 14, Emakumeak eszenan antzerki zirkuituaren barruan. Aitorpenen, haserrealdien eta barre saihestezinen artean, Marina Merino (Ane), Visi Martínez (Edurne) eta Rosa Quintana (Arantza) aktoreek kontzertu digute nola gau lasaia izango zela agintzen zuen azkenean agerian uzten duen, bizitza osoko talde bat elkartzen denean... ezer ez dela hain aurreikusgarria. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da eta sarrera gonbidapenarekin izango da (Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin eskuragarri).

## ALBE Gala

Igandean, abenduak 14, ALBE Gala izango da Igeretxe hotolean, 12:00etan, Sustrai Colina, Ane Labaka eta ALBEko bertsolariekin. Balendin Enbeita bertsopaper lehiaketako sari banaketa ere izango da, Bidean Erromeria taldearen kontzertu eta koktelarekin batera. Gonbidapenak: 605704385/[alebgetxo@gmail.com](mailto:alebgetxo@gmail.com)

Bestalde, Jone Uria getxotarra da Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalean kantatuko duen bertsolarietako bat. Hitzordua, abenduaren 20an, 17:00etan, izango da Bilboko Casillan. Sarrerak: [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

# Algortako AJANE elkarte eta Egoitz Méndez (GAUDE), 2025eko Boluntariotza sariak

AJANE Algortako nagusientzako elkarteak eta GAUDE elkarte Egoitz Mendezek jaso zuten asteartean, hilak 9, 2025eko Boluntariotzaren sariak, modalitate kolektiboan eta banakakoan, hurrenez hurren, SAREKIDE Getxoko erakunde boluntarioen elkarteak, Udalarekin lankidetzan, Romo Kultur Etxean egindako ekitaldian.

XXXII. edizioko sariak, alde batetik, tokiko boluntariotzaren eta ekimen kolektiboen indarraren garrantzia aitortzen dute, esate baterako AJANERena, zahartze aktiboa gure udalerriko eguneroko errealitate bihurtzea lortzen baitute, eta, bestetik, Mendez bezalako boluntariotzarena, komunitate-loturak indartzen baititu eta gizarte inklusiboago bat eraikitzen laguntzen baitu.

Topaketan Amaia Aguirre alkatea eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotzia izan ziren erakunde ordezkarien artean. Aguirrek nabarmendu zuen *“une zailenetan –krisietan, ziurgabetasunean, hauskortasunean– beti azaleratzen da oso gurea den zerbait, hau da laguntzeko borondatea. Eta Getxon, borondate hori ez da keinu puntualetan geratzen, gure nortasunaren parte delako, elkarte-sare indartsu, dinamiko eta egokitzeko gai den baten parte, pertsonak beti erdigunean jartzeko. Topaketa hauek ospakizun bat izateaz gain, aitortza bat ere dira”*.

## AJANE elkarte

AJANE elkarte 2013an sortu zen eta gaur egun 1.650 kide (1.350 emakume eta 300 gizon) baino gehiago ditu. Entitateak bakar-



dadeari aurre egiten eta auzo-loturak indartzen laguntzen duen jarduera-programa zabala eskaintzen du. 13 boluntariok kudeatzen dute erakunde eta koordinatzen dituzte programak, bazkideei arreta emateaz gain.

## Egoitz Méndez

Bestalde, Egoitz Méndez boluntarioak hamar urte baino gehiagoko ibilbidea du adimen-minusbaliotasuna duten pertsonen eta haien familiei laguntzen, eta haietako bakoitzak bere bizi-proiektua garatzera eta eskubide osoko inklusioa edukitzera ere. Urte horietan, 150 pertsona baino gehiago izan ditu bidelagun (horietatik 127 Getxokoak), hurbileko eta errespetu sakoneko jarrerarekin, bai programa desberdinen bidez, bai lagundutako pertsonekin duen harremanaren bidez.

## Argazki Sozialaren sariak

Aurreko edizioetan bezala, VIII. Argazki Lehiaketa irabazi zuten pertsonen ere sariak eman zizkie-

ten. Lehenengoa ASEBIER Gai-xotasun arraroen elkartearentzat izan zen, El vagón de los sueños argazkiagatik; bigarrena Oliva Díaz Corredorrentzat, El hilo que nos une lanagatik, eta herri bozketaren aipamen berezia Nerea Garaizar Velascoarentzat, Grandes pies, gran ausencia lanagatik.

# “Eguberri partekatua” ekimenaren beste edizio bat

Hirugarren urtez jarraian, Argia Fundazioak *Eguberri partekatua* ekimena antolatu du, Udalarekin elkarlanean. Hitzordua abenduaren 20an izango da, goizeko 11:00etatik aurrera, Fundazioaren egoitzan, Algortako Trinitate kaleko 11. zenbakian.

Ehun lagunentzako bazkaria izango da, lagunik ez dutenentzat edo egoera zailean egoteagatik Gabonak ospatzeko aukerarik ez dutenentzat, gozatzeko aukera izan dezaten. Bazkariak gain, jarduerak eta emanaldiak ere izango dira.

Bazkarian eta boluntario zereginetan (dirua edo denbora emanez, jarduerak antolatzen...) parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete 686 10 05 29 zenbakian.



# Urte Alaiak elkarte bere lehen 30 urteak ospatzen ari da

Urte Alaiak Nagusien Elkarteak bere 30. urteurrena ospatzen ari da hiruhileko honetan, 1995eko irailean, Eleiz Etxean edo Andra Mari Apaizetxean, Jose Sagarna parrokoak utzitako lekuan, lehenengo urratsak eman ondoren. Elkarteak hamabost bat lagun partehartzearekin hasi zen martxan, eta hainbat jardura egin zituzten, hala nola pintura tailer bat, abesbatza bat eta Tai-Chi bat.

Bazkide-kopuruaren eta jardueren hazkundearen ondorioz, lokala txiki geratu zen, eta, ondorioz, 2002ko martxoan, Udalak utzitako lokal batean hasi zen lanean, Puerto de Orduña kalean, Juan José Quiñones presidente izendatzearekin batera, gaur egun ere kargu horretan jarraitzen duena.

Urteak joan urteak etorri, jardura berriak gehitu dituzte, hala nola dantza eskolak, liburutegia, ipuin

kontalarien tailerra, memoria ariketak, musikoterapia, hitzaldiak eta leku historiko eta ekologikoetara bidaiak, gimnasia, yoga, xakea, eskulanak, teknologiari buruzko jarduerak, Estatutuaren jasotako helburuak betetzeko.

Gaur egun elkarteak 350 bazkide ditu, azarotik urtarrilera bitartean antolatzen ari diren ospakizunetan murgilduta. Besteak beste, meza eta urteurrenoko bazkaria, adinekoentzako farmazia-zerbitzuei buruzko hitzaldia, liburu erabilien azoka txikia, gabonetako apaingarrien tailerrak, dantzaldia Jesusen Bihotzaren egoitzan, eta Gabonetako askaria.

Harremanetan jarri nahi dutenak egoitzara joan daitezke, astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:00etara, 688691632 telefonora deitu edo [urtealaiak@gmail.com](mailto:urtealaiak@gmail.com) helbidera idatzi.



## Zabalketak jaso du Bigarren Eskuko Liburuaren Azokan bildutakoa

Amaia Aguirre alkateak eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak Zabalketa GGKERi eman zioten, pasa den asteartean, Romo Kultur Etxeko liburutegian, joan den azaroaren 11tik 16ra ospatutako Bigarren Eskuko Liburuaren Azokan bildutako diru kopurua (13.173 euro), herritarrek emandako liburuak, aldizkariak, koadernotxoak eta entziklopediak euro batetik gorako prezio simbolikoan saldu ondoren. Ateratako dirua Susana Mateo Garapenerako Lankidetzako koordinatzaileak jaso zuen eta Israelgo estatuarekin gatazka armatua duten libanoar gazteei laguntzeko proiekturako izango da.

# Edukiontzi marroiaren gaikako bilketa bultzatzeko foru kanpaina aurkeztu da Tiki Toki Zentroan

Fadurako Tiki Toki Zentroa aukeratu du Bizkaiko Foru Aldundiak *A ze marroia/El gran marrón* kanpaina aurkezteko. Edukiontzi marroian hondakin organikoaren gaikako bilketa areagotzeko ekimena da. Aurkezpen ekitaldia joan den asteazkenean izan zen, hilak 10, eta Amaia Aguirre alkatea ere bertan izan zen, beste agintari batzuen artean.

Kanpainaren karabanak urtarrilaren 19an hasiko du bere ibilbidea eta maiatzaren 17an amaituko da. Tarte horretan, lurraldeko 30 udalerriri bisitatuko ditu, oraindik aukeratzeko daudenak, herritarrek sentsibilizatzeko. Etorkizunerako erronka esanguratsua da: jatorrian bereizitako kopurua bostez biderkatzea, gaur egun 12.000 tona izatetik 2030ean 60.000 tona izatera igarota.



## Publiko desberdinei egokitutako kanpaina

Foru erakundeak, Garbiker sozietate publikoaren bidez, lehiaketak hartuko dituen set bat jarriko du hautatutako udalerrietan, herritarrek hondakin organikoa bereizteari eta kudeatzeari buruz dituzten ezagutzak probatzeko aukera izan dezaten. Era berean, edukiontzi

marroia identifikatzeko eta ixteko sistemari buruzko informazioa emango da.

Gazteak ere protagonista izango dira: izan ere, 20 ikastetxe bisitatuko dira, eta horietan jarduera dinamikoak egingo dira, hala nola errealitate birtualean murgiltzeko esperientziak eta txikitatik bereiz-

keta egokia sustatzeko diseinutako prestakuntza lehiaketak. Eta ostalaritzaren sektoreak (HORECA) sentsibilizazio ekintza espezifikoak izango ditu.

Kanpainaren osagarri, sare sozialetako edukiak eta ekintzak jarriko dira, bai eta kontsultarako tresna digital erraz bat ere, edukiontzi marroiaren erabilerari buruzko zailtasunak argitzeko.

Gainera, hondakin organikoaren aurreikusitako hazkunderen aurrean beharrezko tratamendugaitasuna bermatze aldera, Foru Aldundiak sustatu du eskualdeko plantak abian jartzea, hala nola Larrañazubir dagoena, lurraldeko biohondakinak kudeatzeko sistemaren eraginkortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko, hondakina tratatuz eta sortzen den eremuan konposta aplikatuz.



## Hainbat espezieetako 869 zuhaitz berri landatuko dira, gehienak autoktonoak

Udalak hainbat espezieetako 869 zuhaitz berri landatuko ditu udalerriko kale, etorbide, parke eta plazetan 2025-2026ko neguko kanpaina. Kanpaina urte amaieran hasiko da eta ehunka ale autoktono eta, besteak beste, artea (*quercus ilex ilex*), pagoa (*fagus sylvatica*), hagina (*taxus baccata*), udareondoa (*pyrus*) edo astigarra (*acer*) bezalako espezieak ipiniko dira. "Jarduketa honetan aurreikusita dago udalerriko hainbat puntutan eremu bakoitzera egokitutako ale autoktono berriak jarriko direla, gune bakoitzera egokituta, kokaleku bakoitzeko lurzorua izararen eta lerrokaduran edo berdeguneetan duten kokapenaren arabera, besteak beste. Gainera, esku hartzen jarraitzeko borondatea dugu, udalerriko hainbat tokitan ehun bat ale autoktono landatuz, astigar arrunta esate baterako, eta kaltetutako urkiak, ibaiertzetatik hartzak edo kostaldearen aurrealdeko arteak, hala nola Satistegiko beheko aldean eta Miramarren berriro jarritz", nabarmendu du Ingurumen arloko zinegotziak, Iñigo Urkizak.

Kanpaina zehar, gutxienez 404 ale ordezkatzeko aurreikusitak da, udalerriko beste leku batzuetan birlantatuko direnak edo, besteak beste, apurtuta, kaltetuta edo gaixorik daudelako kenduko direnak.



## Txori txiki eta saguzarrentzako habia-kutxei buruzko tailerra

Txori txiki eta saguzarrentzako habia-kutxak muntatzeko eta eraikitzeko tailerra antolatu du Ingurumen Unitateak larunbaterako, hilak 20, Romo Kultur Etxean. Jarduera bereziki txikienei dago

zuzenduta, eta horrek irauten duen bitartean, habia-kutxek duten garrantzia azalduko da, txori intsektujaleek ingurune naturalean funtsezko eginkizuna betetzen baitute eta seguruenik habia horiek aprobetxatuko dituzten espezieak erakutsiko dira argazkien bitartez.

Muntatu ondoren, habia-kutxa apaindu, marraztu eta zenbaki batekin pertsonalizatu ahal izango dute, ondoren herriko parkeetan jarriko baitira txoritxoek erabiltzeko.

Tailerra bi txandatan egingo da: lehenengoa 10:00etatik 11:30era eta bigarrena 12:00etatik 13:30era. Aldez aurretik izena eman behar da, ordutegi bat edo bestea nahia go dela adieraziz. Izan ere, oso garrantzitsua da tailerrera joatea izena eman eta gero, edo, joango ez bada, gutxienez bi egun lehenago abisatzea, eskaera handia izaten baita.

Izema emateko, bidali e-maila helbide honetara:

[boluenatura@gmail.com](mailto:boluenatura@gmail.com).



## "Kantauriko itsaspeko fauna" erakusketa

Larrañazubirko Ingurumen Aretoak *Kantauriko itsaspeko fauna* erakusketa hartuko du martxoaren 17ra arte. Asier Martínez eta Alejandro Ángeles urpekarri afizionatuek Kantauri itsasoan egiten dituzten urperatzeetan ateratako 12 argazkik osatzen dute erakusketa. Ikuskizunaren protagonistak dira, besteak beste, itsas aingira, olagarroa, itsas zaldia eta nudibrankioak. Erakusketa ikusgai izango da 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:30era (asteburu eta jaiegunetan, goizetan bakarrik).

# Udal talde politikoaren iritzia



## GABONAK DIRA!!!!



Abenduko zubia jada igaro da, eta kaleak eta plazak argiz eta apaingarriz beteta ditugu; hortaz, bagaude Gabonetan bete-betean.

Getxoko auzo guztietako kale eta plazetan, tokiko eta hurbileko merkataritza-proposamen eta -aukera bikainak dauzkagu, ezagutzen eta artatzen gaituen merkataritzak eskaintzen dizkigu, eta baita ostalaritzak ere, non batez ere garai honetan topaketez, elkarketez eta une onenez gozaten dugun.

Gabonak baino lehen eta bitartean Getxo topagunea izateko gonbita egiten duguten jardueraz eta ekimenez gozaten jada egun batzuk daramatzagu. Deneratik daukagu: sorpresa- eta opari-proposamenak, denda, taberna eta jatetxe guztietan arreta eta kaliterik onena eta Getxoko merkataritzak eta ostalaritzak

getxoztarrentzako eskaintzen dituzten zerbitzu guztiak.

Halaber, gure Udaleko zenbait arlok kalitate handiko eta modalitate askotariko kultura-, kirol- eta aisialdi proposamen bereziak eskaintzen dituzte adin guztientzat.

EAJ-PNVko kideok Getxoko herritarren aurrean gure burua aurkeztu genuenean, besteak beste, bi konpromiso nabarmen hartu genituen: Getxo euskarekin, gure kulturarekin eta ohiturekin konprometituta egotea, aniztasunarekin batera kultura- eta gizarte-aberastasun tresna izan daitezen; eta adierazi genuen kaleko merkataritza-plaza dela Getxo, non helburu nabarmena baitira hurbileko produktuen ostalaritza, merkataritza eta zerbitzu profesionalak.

Getxoko 2025eko Gabonetako egitaraua

gure konpromisoaren adibide nagusi bihurtu da. Hilabetez baino pixka bat gehiagoz, egun hauetan zerbitzu eta proposamen horiek guztiak bilduko ditu programazio eta eskaintza apartak, teknikarien eta politikarien esfortzuari esker. Getxo auzokideentzat ez ezik, inguruko udalerrietzat erreferentzia ere bada. Bertan, txikienetatik hasita nagusienetaraino, guztiak hurbildu eta eskaintzaz gozatu dezakete: erosketak, topaketak, ospakizunak, musika, atrakzioak, tailerrak, bertsoak, antzerkia, lasterketak, kirol-ekitaldiak, Olentzero eta Mari Domingiren desfilea, Errege Magoen desfilea, txu-txu tren, Txurrukako sekulako noria, argiak, ipuin-kontalariak, barrakak...

Ilusioaren, lagunaren eta familiararen, ospakizunaren eta gozamenaren ardatza da Getxo. Getxo, kalean bertako merkataritza-plaza, Gabonetarako ere bai.



## ASFALTOAREN EGOERA GETXON, LUZATU EZIN DEN ARAZOA

Gure alderdiak auzokideei adierazi nahi die oso kezkatuta gaudela Getxoko hainbat kaleko asfaltoaren narriadura argiaz. Egunero ikusten dugu zuloak, hondoratzeak eta pitzadurek zirkulazioan eragina dutela eta arriskuan jartzen dutela gure bideen erabiltzaileen segurtasuna, bereziki motor-gidari eta txirindulariarena.

Halaber, duela asko hasi ginen oharrazten mantentze-lanen gabezia eragin negatiboa izaten ari dela getxoztarren mugikortasunean eta bizi-kalitatean. Ez da deserosotasun kontua bakarrik: ganoraz jardun ezean, higadurak au-

rrera egiten jarraituko du eta kostua eta arriskuak handitu egingo dira. Horregatik, asfaltoa hobetzeko berariazko plana abiarazteko beharra defendatzen dugu, lehenetsuna gune kaltetuenetan jarri eta premiazko jarduketak uztartzeko. Hala ere, iragan azaroaren 27ko Osoko Bilkuran, gainerako alderdiak ez ziren gure proposamenaren alde azaldu, egoera hain agerikoa izan arren. Asfaltoa hobetzeko Udalak planifikatzearen eta gardentasunez jardutearen alde egiten dugu; izan ere, gure udalerririk ondo mantendutako kaleak merezi baititu.



## UDAL GOBERNUAK ORAINDIK EZ DITU 2026RAKO UDAL AURREKONTUAK AURKEZTU

Urtea amaitzeko egun eskas batzuk geratzen diren honetan, ezin dugu ezkutatatu bizi dugun egoerarekiko kezka eta tamaina. Getxoko Udalak 100 milioi eurotik gorako aurrekontua kudeatzen du, eta, hala ere, EAJk eta PSEk osatzen duten Udal Gobernuak 2026ko aurrekontuei buruz ez du oraindik inolako informaziorik eman: ez kronogramarik, ez zirriborro-proposamenik, ez aurrekontuaren norabide politikoaz orientaziorik, ezta oposizioak ekarpenak eta emendakinak aurkezteko aukera izango duen mekanismoaren berri ere. Horrek agerian utzi digu seguruenik aurrekon-

tua prorrogatuta geratuko dela.

Honek guztiak ondorio sakon eta negatiboak ditu. Aurrekontu prorrogatu batek esan nahi du Udalak ezin duela herritarren premia berrietara egokitu, ezin dituela aurreikusi etorkizunerako beharrezko inbertsioak, eta ezin dituela urte honetako errokeni benetan erantzun. Aurrekontu zahar bati eustea geldialdi politikoaren adierazpen argia da: ez da norabidea definitu, ez da lehenetsunak markatu, eta ondorioz, ez da Getxoren etorkizunari buruzko benetako proiekturik eskaintzen.

Ezin dugu ahaztu Getxok aurrean dituen erroka estrukturalak. Etxebizitzaren problematika gero eta larriagoa da; zaintza lanen prekarizazioa eta feminizazioa arazo egiturazkoa da eta politika ausartak behar ditu; bazterketa egoeran dauden pertsonen errealitatea ikusgarriagoa bihurtzen ari da eta esku-hartze integralak behar ditu; komertzio txikiaren gainbehera gure auzoen dinamismoa kolokan jartzen ari da... Horiek guztiak ezin dira aurrekontu "kontinuista" batekin konpondu. Herriak premia berriak ditu, eta premia berriek aurrekontu berriak eskatzen dituzte. Ez da filosofia politiko

kontua, oinarritzko kudeaketa kontua baizik.

Horregatik, exijitzen dugu —eta herritarren izenean ere eskatzen dugu— gardentasuna, antolaketa eta lidergo politiko arduratsua. Getxok ez du merezi azken hilabeteetako immobilismoa eta atzerapena.

Getxoren etorkizuna ez da albo batean utzi behar. Eta guk, oposiziotik, lanean jarraituko dugu hori exijitzen eta eskatzen, herritarren ongizatea eta eskubideak jokoan daudelako.



## ADIKZIOEN PREBENTZIOAREKIN KONPROMISOA

Adikzioen inguruko informazioa eta aholkularitza ematen dituen udal-zerbitzuak, Ondoanek, egiten duen lanaren garrantzia nabarmendu nahi dugu. Baliabide hori Getxoko Adikzioen Tokiko Plan berriaren barruan dago eta prebentzio eta antzemate goiztiararen aldeko apustua egiten du. Lehenengo urtean eskaera handitu eta gero, Gizarte Kohesio Arloak bultzatutako eta

Carmen Díaz sozialistak kudeatutako zerbitzuak arreta ordutegia luzatu du, planaren ekintza garrantzitsuenetarikoa bat indartzeko.

2024ko urritik aurrera, kontsumoen eta jokabide arriskutsuen inguruko zalantzak dituzten gazteentzako zerbitzu hurbila bihurtu da, zenbait egoerari nola aurre egin ez dakiten familiak artatzen ditu eta drogekin, jokoarekin edo tekno-

logien erabilerarekin lotutako arazoak dituzten helduei laguntzen die. Lehen urte horretan, 28 kasu jorratu dira, erdia adingabeak, eta 78 saio egin dira, aurrez aurre zein modu telematikoa.

Kezkatuta dagoen familia, orientazioa bilatzen duen gaztea edo une zailean dagoen heldua dago kontsulta bakoitzaren atzean. Ondoan funtsezko laguntza da horientzat.



## GELDIARAZI GOLFEKO ISURKETAK ITSASORA

Salatzen dugu Galeako Golfak hirurogei urte baino gehiago daramatzala hondakin-urak eta igerilekuen hustuketa-urak Kantauri itsasora inolako kontrolik gabe isurtzen, 1960ko ustezko baimen frankistarekin. Bestetik, Udalak hamarkada bat dararama ezer egin gabe, 2015etik URAK egindako errekerimenduak gorabehera. Isurketen aurkako zehapenak eta kautelazko neurriak ezartzeko eskatzen ditugu. Bukatu dira pribilegiozko tratua eta legezotasun ezak.